

Erreferentziazko erakunde kooperatiboa den horretan

**JAPONIAKO KONTSUMITZAILE ERAKUNDERIK HANDIENEO
ORDEZKARIAK EROSKI-RI BISITAN, DENDA EREDUA ETA
MARKA PROPIOAK DIRELA-ETA INTERESATURIK**

- **Japoniako Kontsumitzaile Kooperatiben Federazioak 30 milioi kide ditu**
- **Programa zabalago baten parte da topaketa, nipondar ordezkariak mundu kooperatiboaren ezagutzan sakontzen ari baitira Mondragon Kooperatibarekin**

Arrasate, 2023ko irailaren 18a.- [Japoniako Kontsumitzaile Kooperatiben Federazioa](#) gaur goizean izan da Arrasaten, [EROSKI](#) hipermerkatuaren egoitza ikusten, euskal kooperatibaren denda eredua hobeto ezagutzeko. Interes berezia dute marka propioetan eta elikadura osasungarriarekin eta tokiko produktuekin erlazionatutako proiektuetan. Programa zabalago baten parte da topaketa, nipondar ordezkariak mundu kooperatiboaren ezagutzan sakontzen ari baitira [Mondragon Kooperatibarekin](#), eta esperientziak trukatzeko.

Hemezortzi kideko talde bat, Yoshitsugu Fujii zuzendari nagusia buru dutela, saltegian izan da bertatik bertara ikusteko Zurekin eredu komertziala, EROSKIren dendak gidatzen dituen, zeinaren ardatzean baitaude bezeroarenganako tratu pertsonalagoa, tokian tokiko produktuen eta sasoian sasoiko freskoen aldeko apustu indartsua, elikadura osasungarriaren sustapena eta eguneroko erosketan dirua aurrezteko era berriak.

Hipermerkatuaren bisitan, Josean Yela EROSKIren Harreman Instituzionalen eta Kanpo Harremanen zuzendariak lagunduta, Japoniako federazioko ordezkariak oso ondo baloratu dituzte EROSKIk darabiltzan jardunbideak, hau da, elikadura osasungarriaren sustapena (oinarritzat freskoak hartuta), tokian tokiko produktuen aldeko apustua eta ingurunean aberastasuna sortzeko tokiko produktuei bultzada ematea. Era berean, EROSKIk dituen marka propioen eskaintza zabalarekin interesatu dira bereziki.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboa

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL

ÉDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

Online prentsa aretoa

Japoniako Kontsumitzaile Kooperatiben Federazioari buruz

1951ko martxoan eratu zen, Japoniako kontsumitzaile kooperatiben federazio nazional gisa. Gaur egun, 312 kide dira federazioaren parte, hala kontsumitzaile kooperatibak nola kontsumitzaile kooperatiben sindikatuak. 30 milioi bazkide guztira. Japoniako kontsumitzaileen erakunderik handiena da federazioa.

Haren zereginen artean dira kontsumitzaile kooperatiben mugimendua sustatzea, CO OP marka garatzea eta hornitzea kide diren kooperatibentzat, eta kide diren kooperatiben negozioak eta jarduerak garatzen laguntzea.

EROSKiri buruz

Kooperatiba izaerako Espainiako lehen banaketa taldea da EROSKI, eta liderretako bat Espainia iparraldeko merkatuan (Galizian, Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan, Katalunian eta Balearretan), %13ko kuotarekin horko merkatuan. 2022 amaieran, haren sare komertzialean 1.526 saltoki zituen; besteak beste, supermerkatuak, hipermerkatuak, cash & carry-ak eta online supermerkatua; horretaz gainera, gasolindegia eta elikagaien arlokoak ez diren beste negozio batzuk. Era berean, sei milioi Bezero Bazkide baino gehiago ditu, eta 31.000 bazkide kooperatibista, langile eta frankizia-hartzaile baino gehiago.